# GRADU AMAIERAKO LANAK EGITEKO ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

## ZIOEN AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak III. kapituluan, graduko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan, gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela, eta beste atal batean gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko duela. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen eta, hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du bere autonomia erabiliz.

UPV/EHUn GRALa egin eta defendatzeari buruzko Arautegia 2015eko martxoaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua eta UPV/EHUko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren Arloko errektoreordearen 2015eko martxoaren 26ko ebazpen bidez argitaratua izan zen. Arautegi horretako 1.4. artikuluak ezarritakoan oinarri hartuta, araudi honek Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidean edo Kriminologian graduatu titulua lortzeko egin beharreko gradu amaierako lana (aurrerantzean GAL) egiteko eta aurkezteko jarraibideak biltzen ditu.

## 1. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN XEDEA ETA IZAERA

1.1. Gradu amaierako lanaren xedea. Gradu amaierako lan gisa, ikasleek, banaka. eta zuzendari baten gidaritzapean, graduan landutako gairen bati buruzko memoria, azterlan, txosten edo irizpen original bat egingo dute.

1.2. Kriminologiarako GAL ikerketa proiektu bat, txosten kriminologiko bat edo nahitaezko kanpoko praktiken ebaluazio txosten bat izango da, banaka eta zuzendari bat edo bik gainbegiraturik egindakoa. Lanak, ezinbestean, originala izan behar du eta honako egitura hau izango du: atal teoriko bat eta beste bat enpirikoa; edo atal teoriko bat eta beste bat, gaiaren egoera berrikusiz[1].

1.3. Ikasten ari den titulazioak ematen dituen prestakuntza, gaitasunak eta trebetasunak hartu izana egiaztatu beharko du ikasleak. Horretarako, defendatu beharreko lanean, ohitura akademikoen arabera datuak bilatzeko, kudeatzeko eta kritikoki interpretatzeko gaitasuna agerian geratuko da, eta ikasleak aztergai duen gaiaren gaineko hausnarketa pertsonal bat ere sartuko da, dagokion bibliografia, dokumentazioa eta jurisprudentzia kontsultatu ondoren.

[1] Bigarren mota honek lehenago egindako lan eta azlerketen analisia behar du erraztu, GRALari edozein azterkela teorikok ez duen perspektiba enpíhkoa (kuantitaliboa eta kiialítatiboa) jarriz.

1.4. GALaren irakasgaiak ondorengo prestakuntza jarduerak izango ditu:
a) Lana nola esleitu eta egingo den orientatzeko mintegia (0,5 ECTS)
b) Banakako tutoretzak (0,5 ECTS)
c) Lana paperean eta elektronikoki egitea eta bidaltzea (3 ECTS)
d) Batzordearen aurrean lana aurkeztea eta jendaurrean defendatzea (2 ECTS).

1.5. Kriminologiako GALak prestakuntza ekintza hauekin osatuko da:
a) Orientazio mintegia lana esleitu eta egiteko (0,5 ECTS).
b) Banan banako tutoretza saioak (0,5 ECTS).
c) Lana paperean eta bertsio elektronikoan entregatzea (9 ECTS).
d) Lana epaimahai baten aurrean azaldu eta defendatzea (8 ECTS).

1.6. GAL Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, GAL esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

## 2. artikulua. MATRIKULA ETA DEIALDIAK

2.1. GALren matrikula unibertsitateak matrikularako ezarritako epearen barruan egingo da, lanak dituen kredituen araberako prezio publikoak ordainduta. GALren matrikula egin ahal izateko, ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztietan matrikulatuta egon behar da nahitaez. Aparteko inguruabarrak direla medio, ikastegietako batzarrek GALren matrikula egiteko aparteko epeak ezarri ahal izango dituzte. Urtarrileko azterketak egin ostean, ikasleak GAL matrikulatu ahal izango du (eskatzen diren beste betekizunak betetzen baditu) otsailean irekiko den aparteko epearen barruan.

2.2. Matrikulak ikasturte akademiko bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea emango dio ikasleari, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Ikaslearen ebaluazioa ez bada ikasturterako ezarritako deialdietan egiten edo lana ez bada deialdi horietan defendatzen, ikasleak hurrengo ikasturtean berriro egin beharko du matrikula.

2.3. Ikasleak matrikulan zehaztuko du zer hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen GAL.

2.4. GALren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko

zuzendariari dagokio artikulu honetan ezarritakoa betetzen déla zaintzea.

## 3. artikulua. GALren BATZORDEA: OSAERA ETA FUNTZIOAK

3.1. GALren Batzorde bat sortuko da. Fakultateko Batzarrak izendatuko du eta ondorengo kideek osatuko dute:
a) Dekanotzako ordezkari bat.
b) Titulazioko Koordinatzailea edo Koordinatzaileak.
c) Laugarren mailako koordinatzailea.
d) Sail edo sailatal bakoitzeko ordezkari bat.
e) Ikasleen Kontseiluak graduko ikasleen artean aukeratutako ordezkari bat.
f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3.2. Besteak beste, ondorengo funtzioak ditu:
a) Ikasleak informatzea. Ikasleei deituko die, irakasgaia, bere helburuak, horri lotutako gaitasunak, prestatu diren jarduerak eta ebaluazioa azaltzeko.
b) Irakasgaiari loturiko gaitasunak har daitezen zaintzea. Batzordeak gradu amaierako lanaren segimendua egingo du, graduan irakasgai honetarako zehaztutako gaitasun espezifikoak hartuko direla bermatzeko.
c) Gradu amaierako lanak ebaluatuko dituzten epaimahaiak izendatzea.
d) Lanak egin bitartean antzemandako gorabehera akademikoetarako irtenbideak proposatzea.
e) Dagokion graduaren urteko txostena prestatzea.
f) Ikastegiko Batzarrak bere ahalmenen esparruan ematen dizkion beste edozein funtzio.
g) Defentsa-aldi bakoitzean "Ohorezko Matrikula" kalifikazioa esleitzea eta ikasturte bakoitzean GRAL onenaren sariak esleitzea.

## 4. artikulua. LANA ZUZENTZEA ETA GAIA ESLEITZEA

4.1. GALa esleitu ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan behar ditu ikasketa-plama amaitzeko behar dituen irakasgai guztiak. Matrikula egiteko momentuan ikasleak daukan bataz besteko nota kontuan hartuta egingo dira esleipenak.

4.2. Graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide diren irakasleek edo graduan irakasten duten ikastegiari atxikitakoek zuzenduko dute GALa. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz eta lana nola egin orientatzeaz: dokumentazioa bilatzea, bibliografia eta jurisprudentzia berrikustea, lanaren plangintza egitea, lanaren egitura zehaztea (aztertu beharreko alderdiak, kapituluen

banaketa, eta abar), epeen plangintza egitea. eta testua aldian-aldian gainbegiratzea.
Orobat, ezarritako helburuak betearazteaz arduratuko da, baita lanaren segimendua egiteaz ere, eta txosten bat idatziko du, defentsa baino lehen, epaimahaiburuari bidaltzeko.

4.3. GALak zuzendari bat baino gehiago izan dezake; edonola ere, gutxienez horietako batek eskolak eman beharko ditu graduko titulazioan.
Kriminologiako gradurako GALaren kasuari dagokionean, salbu eta irakasleak banaka gai badira alderdi teoriko, metodologiko eta enpirikoetan orientatu, aztertu eta ebaluatzeko, ohikoena izango da GAL bi irakaslek zuzentzea, hauetariko bakoitza kriminologiako GALak ezinbestean jorratu behar dituen ataletako batez arduratuta, hau da, atal teorikoa eta atal enpirikoa.

4.4. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere GAL zuzendu ahal izango dute, GALak graduan eskolak ematen dituen sail bateko kide den edo graduan irakasten duen eta ikastegiari atxikita dagoen zuzendarikide bat badu.

4.5. Ikasleak GAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, GAL unibertsitateaz kanpoko pertsonek zuzendu ahal izango dute, baina kasu horretan 4.1 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.

4.6. Ikastegiko Batzarrak, edo, hala badagokio, Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak, prozedura bat bideratu eta argitaratuko du matrikulazio aldia amaitu baino lehen. Prozedura horren bidez, GALaren zuzendariak eta gaiak esleituko dira eta lana egiteko eta defendatzeko hizkuntzak jarriko dira aukeran.

4.7. Ikasleak ez badu GAL gainditzen edo defendatzen dagozkion bi deialdietako batean, ikasturte akademiko berrian berriz matrikula egin beharko du.

**5. artikulua. LANA GORDAILUAN JARTZEA ETA DEFENDATZEA**

5.1. Zuzendariak eranskinaren arabera egindako txosten bat helaraziko dio epaimahaiburuari lana defendatu aurretik. Txosten horretan, aipagarritzat jotzen duen ohar oro jaso ahal izango du, beti ere GALaren kalifikazio bat eman, proposatu edo erortzen utzi gabe.

5.2. Graduko azken ikasturtean zehar defendatu eta ebaluatu beharko da GALa, ikasketa-planaren gainerako irakasgai guztiak matrikulatu eta gero.

5.3. Zuzenbide Fakultateak gradu amaierako lana defendatzeko bi

deialdi ezarriko ditu. bata ekainean eta bestea uztailean. Urtarrileko azterketen deialdi ostean ikasketak amaitu dituen ikasleak, GAL defendatzea eskatu ahal izango du. Aurrez, ikasleak ikastegiko azterketen egutegian adierazitako eta argitaratutako datetan utzi beharko du lana gordailuan.

5.4. Ikasleek hau egin beharko dute:
a) Ezarritako prozeduraren arabera, GAL defendatzea eskatu.
b) Paperean edota euskarri informatikoan (PDF) lanaren kopia bat utzi. Idazkariak epaimahaiburuari helaraziko dio kopia. Epaimahaiko idazkariak beste bi kopia helaraziko dizkie, paperean edo euskarri informatikoan (epaimahaiak nahi bezala), ebaluazio epaimahaiko gainerako kideei.

5.5. Ikastegiak antolatuko ditu GAL defendatzeko ekitaldiak.

5.6. Gradu amaierako lanaren defentsa publikoa izango da eta epaimahai baten aurrean egingo da. Zuzendariak ezin izango du epaimahaikide izan. Defentsan, ikasleak lana aurkeztuko du eta, ondoren, epaimahaikideek zenbait galdera egingo dizkiote. Aurkezpenean, ikasleak gradu amaierako bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azalduko ditu, eta, horretarako, epaimahaiak aurrez ezarritako denbora izango du (gehienez 20 minutu). Gero, epaimahaiak zenbait balorazio, ohar edo galdera egingo dizkio ikasleari.
Kriminologiako GRALari dagokionez, defentsa publikoa ikus-entzunezko euskarri edo poster baten laguntzaz burutu daiteke.

5.7. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola era, gradu amaierako lana Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

## 6. Artikulua. EPAIMAHAIKIDEAK IZENDATZEA

6.1. Gradu batean lanaldi osoan diharduten irakasle guztiek, GALk epaitu behar dituzten epaimahaietan parte hartzeko obligazioa dute:
a) Zuzenbideko GALen kasuan:
GALk epaituko dituzten epaimahaiak,
Sailak izendatuko ditu, ikastegia presente dagoen lurralde bakoitzean bat gaztelerazko lanak eta bestea euskaraz egindako lanak epaitzeko. Sailak ez badu epaimahairik izendatzen edo garaiz kanpo izendatzen badu, Batzordeak osatuko du epaimahaia, Sail horretan denboraldi osoan diharduten irakasleen artean zozketa eginez.
b) Kriminologiako GALen kasuan:
Kriminologiako GRALen kasuan: Sailak izendatuko ditu, Graduan duen parte-hartzearen arabera, diziplina-arteko epaimahaiak osatuko

dituzten kideak. Ikastegiak bost epaimahai osatuko ditu, betiere diziplina-artekotasuna bermatuz. Sailak ez badu epaimahaikiderik izendatzen edo garaiz kanpo izendatzen baditu, Batzordeak osatuko du epaimahaia, Sail horretan denboraldi osoan diharduten irakasleen artean zozketa eginez.

6.2. Epaimahai bakoitzak hiru kide eta, gutxienez. ordezko bat izango ditu. Gutxienez epaimahaikideetako bat lanaren gaiarekin zerikusia duen arlo batekoa izango da. Gradu amaierako lanaren zuzendari edo zuzendarikide batek ezin izango du, inola ere, lana ebaluatzeaz arduratuko den epaimahaiko kide izan. Hala ere, epaimahaiak, zuzendariaren balorazio txostena irakurri ondoren, deliberamendu prozesuan parte hartzeko aukera eman ahal izango dio. Irakasle bar egon daiteke hainbat epaimahaietan, egokia dela uste bada.

6.3. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburuak eta idazkariak horrela jardungo dute beti eta horiek izendatzeko irakasle kategoria eta antzinatasuna hartuko dira kontuan.

6.4. Epaimahaiko idazkaria arduratuko da gradu amaierako lana kalifikatzeko aktak III. eranskinaren arabera behar bezala betetzeaz eta haiek Fakultateko administrazio zerbitzuei bidaltzeaz. Ekitaldiaren amaieran, idazkariak Fakultateko Idazkaritzan erregistratuta utzi beharko du akta. Akta graduko koordinatzaileak edo honek eskuordetzen duen pertsonak jasoko du, berari baitagokio aktak sinatzea eta ixtea. Horretarako, hiru egun baliodun izango ditu, GAL defendatu eta biharamunetik kontatzen hasita.

## 7. artikulua. DEFENTSARAKO EGUTEGIA

7.1. Fakultateko Dekanotzak, ikasturteko lehen hiruhilekoan, zehaztuko ditu prozesuaren datak, bi deialdiei dagozkienak: matrikula, lana entregatu eta defentsa noiz izango diren. Epaimahaiak osatu eta GALk matrikulatu ostean, Dekanotzatik zehaztuko dira defentsa bakoitzaren data, ordua eta lekua.

## 8. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

8.1. Ikasleak aurkezpena egin eta zuzendariaren txostena irakurri ondoren, epaimahaiak ikasleari zer kalifikazio dagokion erabakiko du (III. eranskina). Ebaluazioa gradu amaierako lanaren irakaskuntza gidan argitaratutako ebaluazio irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian ezarritakora egokituta egingo da.

8.2. Kalifikazioa ondorengoak gehitzearen emaitza izango da:
a) Kalitate zientifikoa (% 30)
b) Aurkezpenaren argitasuna, nola idatziz hala ahoz. Kontuan izango da aurkezpena ingelesez edo frantsesez egitea (% 40).
c) Arrazoibideak eztabaidatzeko eta defendatzeko gaitasuna *(%* 30)

8.3. Kalifikazioa Otik lOera bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:
0-4,9: Gutxiegi(G)
5,0-6,9:Nahiko(N)
7,0-8,9:Oso ongi(OO)
9,0-10:Bikain(B)

8.4. "Ohorezko matrikula" aipamena 9,0ko edo handiagoko kalifikazioa lortu duten ikasleei eman ahal izango zaie. Halako ikasle kopuruak ezin izango du dagokion ikasturtean irakasgai horretan matrikulatutako ikasleen ehuneko bost baino handiagoa izan.

8.5. Lanari loturiko gaiaren edo irakasgaiaren gaitasun espezifikoak ez ezik, gradu amaierako lana prestatu eta defendatzerakoan ikasleek Gradu Amaierako Lana irakasgaiaren gaitasun espezifikoak ere erakutsi beharko dituzte:
a) Argudiatzeko eta kritikoki arrazoitzeko teknikak behar bezala erabiltzea.
b) Publiko espezializatuari informazioa transmititzeko gaitasuna ematen dioten ahozko eta idatzizko komunikazio prozesuak menperatzea.
c) Ikasteko prozesuan modu jarraitu eta autonomoan kudeatzea.
d) Gai batean espezializatzea, lan merkatuan arrakastaz sartu edo, hala badagokio, espezializazioko edo birziklatzeko ondorengo ikasketekin jarraitu ahal izateko.

8.6. Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak gradu amaierako lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

8.7. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira, baina, epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko Errektoreari.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako Batzordeak araudi hau garatzeko ahalmena izango du, baita berau aplikatzerakoan aurkezten diren alderdi guztiak interpretatzeko eta argitzeko ere.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Salbuespen gisa, 2014/2015 ikasturtean egindako GALen esleipenak indarrean jarrai dezake 2015/2016 ikasturtean ere.